

I - ARABAKO BATZAR NAGUSIAK ETA ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN FORU ADMINISTRAZIOA

Organismo Autonomoak

GIZARTE ONGIZATERAKO FORU ERAKUNDEA

Martxoaren 8ko 31/2023 Foru Aginduaren bidez deitutako laneko medikuen lan-poltsa eratzea Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea erakunde autonomoaren eremuan

Martxoaren 8ko 31/2023 Foru Aginduaren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea erakunde autonomoaren eremuko laneko mediku lanpostuari dagokion lan-poltsa eratzeke deialdiaren oinarriak onartu ziren.

31/2023 Foru Agindu horren bigarren xedapenean, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Gerentziako Zuzendaritzaren esku uzten da poltsa hori eratzeke ebazpena. Ildo horretan, zortzigarren oinarrian jasota dago kalifikazio batzordeak, interesdunek aurkeztutako erreklamazioak ebatzi ondoren, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Gerentziako Zuzendaritzari helaraziko diola bitarteko funtzionarioak izendatzeko lan-poltsa behin betiko onartzeko ebazpen-proposamena. Izangai bakoitzak lortutako puntuazioaren arabera ordenatuko da lan-poltsa, eta prozesu horren ondoriozko zerrenda Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen enplegu atarian argitaratuko da, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aldi baterako lan-poltsen kudeaketa arautzen duen araudia onartzen duen maiatzaren 20ko 80/2021 Foru Aginduaren arabera arautuko da.

2023ko maiatzaren 11n, kalifikazio batzorde honek Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Gerentziako Zuzendaritzari helarazi zion bitarteko funtzionarioak izendatzeko lan-poltsa behin betiko onartzeko ebazpen-proposamena.

Martxoaren 8ko 31/2023 Foru Aginduan egindako eskuordetzarekin bat etorritik, eta Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea erakunde autonomoaren egitura eta funtzionamenduaren erregelamendua onartzen duen Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 12. artikuluan oinarrituta, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Kudeaketako Zuzendaritzak,

EBAZTEN DU

LEHENENGOA. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundea erakunde autonomoaren eremuan laneko medikuen lan-poltsa eratzea onartzea, l. eranskinean xedatutakoarekin bat etorritik.

BIGARRENA. Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen Enplegu Atarian eta ALHAOn argitaratzea laneko medikuen lan-poltsa hori. Lan-poltsa hori indarrean egongo da ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliodunetik aurrera.

HIRUGARRENA. Lan-poltsa hori maiatzaren 20ko 80/2021 Foru Aginduaren arabera arautuko da. Foru Agindu horren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aldi baterako lan-poltsen kudeaketa arautzen duen araudia onartzen da, aldi baterako zerbitzuak emateko.

LAUGARRENA. Lan-poltsa hori poltsa etengabe irekiaren modalitatean sartzten da, maiatzaren 20ko 80/2021 Foru Aginduaren 6.2 artikuluan ezarritakoaren arabera. Agindu horren bidez, Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen aldi baterako lan-poltsen kudeaketa arautzen duen araudia onartzen da, aldi baterako zerbitzuak emateko. Laneko medikuen lan-poltsa iraunkorren zabaltze horri dagokionez, hurrengo sartzetan sartuko dira 2023ko ekainaren 20tik 2023ko irailaren 19ra arte aurkeztutako eskabideak, parte hartzeke betekizunekin bat datozenak, eta horrela hurrenez hurren (irailaren 20tik abenduaren 19ra, abenduaren 20tik martxoaren 19ra, martxoaren 20tik ekainaren 19ra).

BOSGARRENA. Gaur egun indarrean dagoen medikuaren lan-poltsa poltsa subsidiarioa izango da.

SEIGARRENA. Ebazpen honen aurka, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, bi hilabeteko epean, jakinarazpen hau jaso eta hurrengo egunetik aurrera, Vitoria-Gasteizko Administrazioarekiko Auzien Epaitegian, edo, bestela, berraztertze errekurtsoa, hilabeteko epean, ebazpena eman duen organo beraren aurrean, uztailearen 13ko 29/1998 Legearen 8. eta 46.1 artikuluetan, urriaren 1eko 39/2015 Legearen 123. artikuluan eta Diputatuen Kontseiluaren apirilaren 3ko 25/2012 Foru Dekretuaren 30. artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz.

Vitoria-Gasteiz, 2023ko maiatzaren 17a

Gizarte Ongizaterako Foru Erakundearen zuzendari-kudeatzailea
JOSÉ FRANCISCO ANTÓN IDRÓQUILIS

I ERANSKINA. MEDIKUEN LAN-POLTSAREN LEHENTASUN-ORDENA

POSIZIOA	NAN
1	58033221
2	16241282
3	16275581
4	39702443
5	13297510
6	44173538
7	1629185